

MUNGIARA (San Antontxu)

Mungia'ko jenteak, eta inguruetako errietan bizi diranak ez gixiako, neguko jai pozgarri bateri itxaroten dagoz. San Antontxu egunari.

Bigarren egunak, «txu»-ren egunak izaten dira Mungia'n ospetsuenak: San Pedro'txu ta San Antontxu.

Egun orreitan, erri-jaia egiten da. Eleizan ez da izaten zeregin aundirik, San Antontxu egunean ezer be ez astegunetako ekinaldiak izan ezik.

Baiña errian jairik aundienak eurak dira. Ez dakit zein ospetsuagoa, baiña San Pedrotxu uste dot, udakoa be ba-da ta.

San Antontxu'k be ba-dauka bere ospea, eta ez txikerra.

San Anton auzo bateko jaia zan eta santuaren egunean ezer egitekoatan an egiten zan. Ez dira gorabera txikiak izan jai ori dala-ta!

San Antontxu, ostera, Mungia'tar guztien eguna da, egun aundia.

Abereen feria egiten zan urte batzuk dirala, feri ospetsua! Baiña azkenengo urteetan, Udalaren itzitasunez, lupetz-artean egiten zan. Orain ez dakit azoka onek jarraitzen dauan be.

Eta zelako pozaz joaten ziran baserritarrak ara! Bear ba'da ez ezer saldu edo erosi egiteko, baiña bai atxaki orregaz eguna igaro Mungia'n eta bazkari ederra egin bertan!

Andrentzat be, aurreko zapa-tuan azoka ederra egiten zan. Jarraitzen dauala uste dot oitura onek.

Andrak dirua urriago erabiltzen eben eta ez eben bazkaririk egiten. Geienean be Leku Ona'n edo olako gozotokiren baten gosaldu.

Azoka au astero egiteko, azoka-leku ederra egin zan erriaren erdi-erdian, gainean ibil-tokia daua, barruan edate-etxea.

San Antontxu egunean jentetza aundia batzen da Mungia'ra. Kaleetan nondik ibillirik be ez. Batez be urtero izaten diran pelotajokoak izaten dira jentea ekarteko onenak, naizta asko jokoldirako egin-eginen etorri eta gero euren etxeetara joan.

«Concordia» kalea ez da estua, baiña ondo betetan da egun orretan. Eta arira datorren ezkerro,



Mungia'ren uriburu barriztua: Erdian udaletxea, eskoian eta berebillen aurrean Azoka-leku barria, gainean here ibiltoki ederra.

kale onen izenak kondaira-alde-tik bere garrantzia dauka. Baiña zergaitik erderazko izen ori erriaren erdi-erdian? Zergaitik ez, esaterako, ALKAR-KALEA edo olako izenen bat.

Jatetxe ta edatetxe asko dagoz Mungia'n, berrogei ta amarretik gora. Eta egun orretan guztiak bete-beterik izango dira. Batez be jateko lekua aurkitzea ez da gauza erreza izango berandu dabiltenentzat.


Jaiak gogoratzen doguzan ezkerro, San Pedro-inguruan ospatzen dan Sukalki-eguna datorku burura. Jai ederra benetan, eta toki ederrean! Billela torrearen inguruko baratz aretan. Giro pozgarria ta gogoangarria.

Auzoetan be egiten dabez Mungia'tarrak jai pozgarriak. Errira etorri goizean, eskoteko zaragia erosi eta txistu ta dantza auzora eroan eta an zugazpe eder eta kerizpetsuetan alkartuta!

Zenbat gauza aitatu geinkezan Mungia'ra begira! Baiña orrialde labur onetan asko geiago ezin esan leiz.

Egun pozgarria opa dautsegu Mungi ta inguruetako guztiai,

OLAZAR'tar Martin'ek



Mungia'ren ikurdia.